

JESUKRISTOREN AZKENENGO TENTAZIÑOA

Naiko zarata ta iskanbila sortu izan ditu «Jesukristoren azkenengo tentaziñoa» deritxon pelikula amerikarrak. Zine-egile Martin Scorsese dogu. Beste bere pelikuletan bezela, ez jako emen be bortizkeria, odola ta sexukeria falta. Orreetan maisu dogu Scorsese. Bestelako zinerik egiteko, ez da oraingoz gauza. Kristori buruz egindako pelikulan, orain arteko marka guztiak ondu ta autsi ditu.

Teknika aldetik trebetasun bako pelikula dogu. Ez dau ezer balio. «Gezurra dirudi ain pelikula txarra ta ezin eskasago batek orrenbeste eztabaida ataratzea. Pelikula onek ezer irauten badau, inguruan sortu izan diran eskandaluei esker izango da», diño Michael Medved zine kritikari sonatuak. Beste kritikari geienak ados datoz. Teknikaz ez dau piperrik be balio. Ta gainera ordu bi t'erdiko luzemetraia. Aspergarria benetan! Baina ain eskandalugarria denez, komunikabideetan baditu utsaren orde naiko propagandista.

Martin Scorsesen Jesukristo

Pelikulan agertzen dan Jesukristo ez da Ebanjelioan agertzen dana, Martin Scorsesek asmatutakoa baino. Nikos Kazantzakisen nobeletan Ebanjelioetan baino geiago oiñarritzen dala, diñosku zine-egileak berak. Pertsona bakoitzak bere biotz barnean olako Kristoren irudi berezia asmatzen dau. Ebanjelioetako Jesukristo bizi ta oso osorik ulertzeko gizonik ez da jaio. Ta jaio be ez da egingo. «Christus semper maior», beti izango da egi bi-

ribilla.

Zelakoa da Martin Scorsesen Jesukristo? Gizon biurria, konplejoz josia, oso errebesa ta urduria. Batez be biotz bako gizona. Scorsesen Jesukristo ixte beti asarre bizian dabil. Ez dauko ez samurtasunik, ez errukirik, ez biguntasunik! Itsuengan ta elbarriengan ta txiroengan, gorroto gorritz bultzatuta utteratzen da. Ez jako inondik inora goimaitasunik ikusten. Orixte bai bada-la, Scorsesen Kristoren akatsik nabariena, eskandalurik nazkagarriena.

Pelikula orretan ez dira falta eszena basatiak, gartatzak ta iguingarriak. Bai Judasekin ta bai Satanasekin daukazan alkarrizketak oso gartatzak dira. Maria Magdalenaz dituan sekxu-artuemonak iguingarriak. Baina eszenarik basatienak ta bortize-nak Azken Afarian datozenak dira. Ogi Santua artzean, apostoluei aoa odolez betetzen jake ta berealaxe odoletan ari dira. Ta bere maitasuna agertzeko, Jesukristok bere biotza errotik brast kendu ta odoletan eskeintzen dautsoe apostoluei. Eszena bildur-garria, ikaragarria benetan!

Scorsesek burutu dauan Kristok ez dauko antzik be Ebanjelioetan ta Eleizan iragarten danaz. Scorsesek bere barneko pro-blemak ta konplejuak Jesukristori leporatu dautsoz. Sikoanalis baterako gizon aproposa dogu Martin Scorsesen. Bere barruko arazoak alde batera itzi ta Ebanjelioetara jo baeban, Pier Pasolini-ren edo Franco Zeffireliren antzera, ez ebazan ainbeste erra-kuntza penagarri ta lotsagarri eukiko.

Biotza Minduta

Bat baino geiago asarre ta kexa agertu dira. Ainbat kris-tauren biotzak oso minduta dagoz pelikula au dala ta ez dala. Zenbaten sentimentu eder ta sakon iraindu ta laidotu ete ditu pelikula onek! Askorentzat kaltegarria danik, ezin ukatu.

Ez dago eskubiderik besteen minaz baliatzea dirua irabazte-ko edo propaganda egiteko edo ez dakit zertarako. Baina gure fedea egunero, tirrika-tarraka, espantu barik, bizi izatcko jaiok

garanok, ez gara joango zine-aretoetara protesta egitera. Ez kilduta ta beldurtuta etxean geratzea errezago dalako. Ez orixe. Badakigulako, «ez dagola ezer, ez aingerurik ez gizonik, gu Kristoren maitasunetik aldentzekorik». «Baliu batzueganako errespetoa, itzala ta begirunea, jende zibilizatuaren ezaugarri ta seiñale dira. Ta ori ez da klerikalismoa. Objetiboki, Maomaren aurkako pelikula baten aurrean bagengoz, maometanuen objezioak ta protestak ez litzakez kritikatu bear, ezta nastau be askatasunaren izenaz ta kultuaz». Eritxi onetan, argi erakusten dau G. Andreotik bere biotza, burua, zuertasuna, zentzua eta ezaguera. «Jesukristoren azkenengo tentaziñoa», bai teknika aldetik ta bai argudioz ain pelikula czin eskasagoa ta zantarragoa danez, ez dot uste beste munduko arrakastarik izango dabenik. Ur-anpuluen antzera ondatuko da. Beste orrenbeste gertatu zan Goddarden «Je vous salue Marie» pelikulaz be. Onelako pelikulak, Karmelen aipatzerik be ez dabe merezi. Parkatu!

A. Olea